

Fontes

Linguae Vasconum

50 urte. Ekarpen berriak
euskararen ikerketari

Nuevas aportaciones al
estudio de la lengua vasca

Latinaren aurreko osagai
indoeuroparra Euskal He-
rriko toponimian: bukaeran
-(iz)amo duten leku-izenak

LUIS MARI ZALDUA

Argitaratzaileak / Editores

Ekaitz Santazilia

Dorota Krajewska

Eneko Zuloaga

Borja Ariztimuño



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Latinaren aurreko osagai indoeuroparra Euskal Herriko toponimian: bukaeran *-(iz)amo* duten leku-izenak

A pre-Latin Indo-European element in the toponymy of the Basque Country: place names ending in *-(iz)amo*

LUIS MARI ZALDUA
Euskaltzain urgazlea
luismarizaldua@gmail.com

JASOA: 2019/07/08 | BEHIN-BEHINEAN ONARTUA: 2019/07/15 | BEHIN BETIKO ONARTUA: 2019/11/21

Patxi Salaberri Zaratiegi irakasleari eskerrak eman nahi dizkiot egindako oharrengatik.

LABURPENA

Bukaeran *-(iz)amo* duen leku-izen gutxi dago Euskal Herrian. Oro har, *-(iz)ama* dutenek harrapatzen duten eremu berean azaltzen dira eta, haiek bezala, ez dira era uniformean banatzen. Halaber, *-(iz)amo* duten toponimoak *-(iz)ama* dutenak baino bakanago eta sartalderago ageri dira, baina biek topoglosa aski nabaria osatzen dute.

ABSTRACT

There are few place names which end in *-(iz)amo* in the Basque Country. In general terms, those that bear *-(iz)ama* come up in the same area covered by the former, and they are not spread uniformly either. In addition, toponyms ending in *-(iz)amo* occur more rarely and further to the west than those ending in *-(iz)ama*. Both constitute, in any case, a fairly evident toponymic gloss.

Gako-hitzak: *-(iz)amo/-(iz)ama*; superlati-
boa; euskara; zelta; Euskal Herria.

Keywords: *-(iz)amo/-(iz)ama*; superlative;
Basque; Celtic; Basque Country.

1. Atarikoa

2016an, «Sobre el elemento indoeuropeo pre-latino en la toponimia de Vasconia: los nombres de lugar terminados en *-ama*» artikulua argitara eman nuen *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian. Latinaren aurreko osagai indoeuroparrak euskal toponimian utzitako arrastoa hobeki ezagutzen laguntzeko asmoz, oraingo honetan bukaeran *-(iz)amo* duten leku-izenak hartuko ditut ahotan. Erabiliko ditudan laginekin hiru multzo egingo ditut: bukaeran *-amo* dutenak, *-izamo(n)* dutenak eta *-amo-* duketen duda-mudazko batzuk.

2. Erabilitako leku-izenak

2.1. Bukaeran *-amo* dutenak

Arkamo oronimoak bi erakuskari ditu, mendi-izenak biak. Lehenbizikoa Barrundian / Leintz Gatzagan dago: *Arcamo* (1478 [xviii]; Pozuelo, 2005, 150. or.), *Arcamo* (López de Vargas, 1770b; Madoz, 1845-1850, VII., 383. or.), *Arcamo* (Marieta; López de Guereñu, 1989, 54. or.); [ar.ká.mù]. Bigarrena Erriberagoitia-Gaubea-Kuartangon aurkitzen da: *Arcamo* (1527; Pozuelo, 2007, 583. or.), *Arcamo* (Arias, 1588), *Arcamo* (López de Vargas, 1770a), *Arcamo* (López de Guereñu, 1989, 144. or.); [ár.ká.mo]. Osagai nagusia zeltiberieraren ondareko *Arco* (Albertos, 1966, 266. or.) nahiz *Arquio* (Gorrotxategi, 2015, 9. or., 2018, 275. or.) antroponimoen oinarriarekin aldera daiteke (cfr. *Arquius*, Solin & Salomies, 1994, 22. or.).

Bigarren adibidea *Arkamotik* nahiko gertu dagoen *Cárcamo* herri izena da: *Carcamu* (1025, Donemiliagako Reja; ik. Salaberri, 2015, 150. or.); [kár.ka.mo]. Hau Mitxelenak (1956, 171-172. or.) ez ezik, Albertosek (1970, 189. or.; 2004, 273. or.), Agudek (1973, 45. or.) eta Salaberrik (2015, 150. or.) ere hartzen dute ahotan; azken hirurek ez dute baztertzen bigarren elementua *-amo* superlatiboa delako aukera. Niri neroni Elgoibarko *Karkizao / Carquizano* (1451; Ayerbe & Exezaraga, 1999, 18. or.) oikonimoa dakarkit gogora.

Hirugarrenaz denaz bezainbatean, *Zaratamo*, *-amo* duketenen sailean, lau silaba dituen ale bakarra dela esatea besterik ez zait gelditzen: *Çaratamo* (1373; Enríquez, Hidalgo de Cisneros & Martínez, 1999, 78. or.), *Çaratamo* (1514; Enríquez, Hidalgo de Cisneros, Lorente & Martínez, 1997, 7. or.), *Zaratamo* (1704; Kerexeta, 1992, 230. or.); [sa.tá.mo] (A. Bidart, ahozko adierazpena, 2019), [sá.ta.mo], [sa.rá.ta.mo] (M. Gorrotxategi, ahozko adierazpena, 2019); cfr. Irigoyen (1972, 217. or.).

2.2. -izamo(n) dutenak

Etxebarriko *Legizamon* jauregia eta auzoa Ibaizabalen bihurtune batean daude: *Sancho Sanchez de Leguizamon* (Gernika, 1321; Enríquez *et al.*, 1999, 16. or.), *Juan Sanchez de Leguiçamo*, *Martin Sanchez de Leguiçamo* (Bilbo, 1431; Enríquez, Hidalgo de Cisneros & Martínez, 2006, 7. or.), «*torre de Tristan de Leguiçamon*» (Bilbo, 1511; Enríquez *et al.*, 1997, 283. or.); [le.ʝi.ʃa.món]. Aiarako *Legizama* auzo izenarekin (ik. Zaldúa, 2016, 16. or.) eta, Mitxelena (AV, 39) eskatu bezala, Burgosko *Segisama / Segisamo[n]*ekin konpara daiteke. Aitzineko zatiak beste superlatibo batzuetan agertzen den (C₁)e(C₂)- egitura du (ik. §3.). Hain zuzen, Matasovićen (2009, 236. or.) hiztegi etimologikoan **leg-* erroa jasota dago (**leg-o-* ‘to lay, lie down’ [Vb]; PIE: **leg^h-* ‘lie’; IEW: 658ff.).

Ohar bat, bidenabar: Partheyek eta Pinderek (1848) egindako Antoninoren ibilbidearen kopia-bilduman, hurrenez hurren, *Segesamone* (189. or. [I, 394.5]), *Segisamone* (214. or. [XXXII, 449.5]) eta *Segisamone* (217. or. [XXXIV, 454.2]) irakur daitezke, baina bigarrenari egileek honako oin-ohar hau idatzi zioten: «*Legisamon Q, Legis ammone R, Legisamone reliqui*» (Q eta R xv. gizaldiko kopien laburdurak dira). Hirugarren agerraldian ere oin-ohar hau izkiriatu zuten: *Legisamone libri*. Cfr. Gorrotxategi (2005, 158. or.).

Sail honetako bigarrena, *Orizamo* baserria, Markina-Etxebarrin dago: *Juan de Oriçamo* (4) (Markina, 1515; Enríquez, 1989, 278. or.), *Maria Francisca Oriçamo* (e. g., 1636), *Orizamo* (1704; Kerexeta, 1992, 113. or.); [oi.ʝú.mo] (I. Lasa, ahozko adierazpena, 2019). Bokal arteko *tap*, izatez, albokari ahul baten oinordea izan daiteke, *VIV* > *VrV* bilakaera ezaguna baita euskaraz (cfr. *Oria*, *Orio* < **Oliana*, **Oliano*; Solinek eta Salomiesek [1994, 131. or.] *Olius* pertsona-izena dakarte; ik. Salaberri & Zaldúa, 2019, 296. or.).

2.3. -amo- duketen duda-mudazko batzuk

Multzo honetako lehena Kanpezu-Genevillako *Andamón* da: «*iglesia de Andamon*» (1481; Pozuelo, 1998, 165. or.), «*barrio de Andamon*», «*termino de Puentezilla de Andamon*» (Ordoñana, 1620, 78. or.; E. Martínez de Madina, ahozko adierazpena, 2019), *Andamon* (Genevilla, 1702; Jimeno, 1992-1999, XXI., 114. or.), *Andamon* (López de Guereñu, 1989, 38. or.). Ohar bedi Portugalen badagoela *Andamus* antroponimoa (*Andamu[s]* *Arconis*; *Hesperia*, onom. 813), bai Albertosek (1966, 295. or.), bai Prósperrek (2005, 281. or.) -*amo* superlatiboarekin lotzen dutena. Hain zuzen, azalbideetariko bat toponimoaren sustraian *(*uilla*) *Andamoni* zegoela pentsatzea da (cfr. *Marañón*; ik. Salaberri, 2015, 47-48. or.). Kuartangoko *Anda* herri izenarekin (ik. Salaberri, 2015, 67. or.) ere erka daiteke aurreneko osagaiari dagokionez.

Artamoiz Lemoizen dagoen baserria da: *Artamonis* (1454; Enríquez, 1988, 111. or.), *Artamonis* (1455; Enríquez, 1988, 117. or.), *Artamóniz* (1796; Kerexeta, 1992, 671. or.); [ar.ta.mu.ʝe], [ar.ta.mú.ʝe] (P. Galé, ahozko adierazpena, 2019). Etimo iluna du: **Artam(o)-* + *-on(a)* + *-iz?* (cfr. *Le[s/z]amona*), *Artamo* + *-nis?* Guztiarekin, hasierako zatiaz esan daitekeen gauza bakarra da, *Andamón*ek eta *Arkamok* bezala, bokal irekia + kontsonante ozena + *herskaria* segida duela (cfr. *Aldama*, *Aldamiz*).

Azkenik, Markina-Xemeingo *Le[s/z]amona* saroiari dagokionez, diodan txistukariaren artikulazio-modua eta punta ez daudela argi: *Lexamona* (1388; Irigoyen, 1975, 86. or.). Irigoyenek (1975, 96. or.) *Lexamotik* eratorritakoa dela uste du.

3. Banaketa

3.1. Lurralde

Bukaeran *-(iz)amo* duen toponimo gutxi dago Euskal Herrian; seguru-antzekoak ematen duten dozena erdi ale eta duda-mudazkoak diren beste hiru ale. Bere laburrean, aski dira, halere, erabili nahi nituzkeen zenbait auzi erabiltzeko.


Lehenik eta behin, garbi samar dago *-(iz)amo* maskulinoa dutenak (eta duketenak) *-(iz)ama* femeninoa dutenak baino bakanagoak direla. Era berean, *-izamo* forma *-amo* hutsa baino gutxiagotan azaltzen da, *-ama* / *-izama* bikoarekin gertatu bezala.

Ezaguna da *-isamo* atzizki indoeuroparra bi elementuz osatua dagoela, *-is-* intentsiboaz (konparaziozkoaz) eta *-Vmo-* (*-mHo-*) superlatibo arkaikoaz hain zuzen (ik. Jasanoff, 1991, 171. or. eta Prósper, 2018, 116-117. or., *passim*). Xehetasunetan sartuz gero, Prósperrek (2018, 130-131. or.) *-isamo* atzizkia hasieran postonikoa zelako hipotesia darabil, bi osagaiak (*-is-* eta *-amo*) jatorriz ziratekeen legez, hau da, hizkuntza zelta komunean, denbora batez behintzat, *-isamo* zuten deizioetan azentua azkenetik hasita laugarren silaban ezartzen zela diosku. Alabaina, azentuaren kokapenaren murriztapen berriengatik eta marka hori *-(C)amo-* segidaren aurreko bokalean jartzearen ondorioz, azkenerako, *-amo-*, *-tamo-*, *-samo-* eta *-isamo-* alomorfoak zituzten superlatibo guztiak proparoxitono bihurtu bide ziren. *-Isamo* zuten formetan azentua <i> bokalera igaro bezala, zenbait eremutan <a> bokala (azentugabea) ahultzeko eta sinkopatzeko joera piztu zatekeen. Zentzu horretan, Prósperren (2018, 124-126. or.) arabera, *-isamo-* duten superlatibo zeltetan bokal-sinkopa goiztiarra da; are gehiago, zenbait ale forma sinkopatuan bakarrik azalduko lirateke.

Hispaniaz denaz bezainbatean, Prósperrek (2004, 189. or.) dio ale guztiek (eta erro-mantzeko haien oinordek) pentsarazten dutela Penintsulako alderdi zeltan **-amo-n*, **-samo-n* eta **-isamo-n* oinarrituriko deizioetan jatorrizko azentua bere horretan gorde zela, azken aurreko silaban alegia.

Frantzian eta Espainian bokal-sinkopa duten superlatibo zelten erakuskarien artean ezagunak dira *Balesmes-sur-Marne*, *Beresmo*, *Eresma*, *Ledesma*... Euskal eremuan, ordea, ez dago aldaketa horren aztarnarik, ez *-izamo* ez *-izama* dutenen artean (*Orizama*, *Leizama*, *Beizama*); salbuespenak *Osma* eta *Sesma* dirateke, biak ala biak barruti erromantzean daudenak, nahiz eta bigarrenaren inguruan euskal toponimoak badiren.

Gurera etorritz, oro har, bukaeran *-(iz)amo* duten leku-izenak *-(iz)ama* dutenek harrapatzen duten lurralde berean azaltzen dira. *Andamón* da esparru horren muietik zerbait aldendu daitekeen bakarra, *-(iz)amaren* etsenplu ziur antzekorik ez baitu ondoan. Guztiarekin, ez dago hemen egiari uko egiterik: *-(iz)amo* duketen toponimoak (*-(iz)ama* dutenak ez bezala) euskal eremuaren sartaldean (Bizkaian eta Araban) azaltzen dira.




1. mapa. Bukaeran *-(iz)amo* duten leku-izenak.

Hala berean, Iparraldean ez da *-(iz)amo* duen toki-izenik kausitu gaurdaino eta gauza bertsua esan daiteke Nafarroaz eta Gipuzkoaz, hango bi lekukotzak Arabarekin mugan daudelako (1. mapa).

Probintziaren kasua deigarria da, bera delako *-(iz)amaren* lekukotza gehien dituen euskal lurraldea. Atentzioa ematen du, era berean, Arabako ipar-sortaldean eta Nafarroako ipar-sartaldean (jatorri indoeuroparreko epigrafia gehien aurkitu den alderdian) amaieran *-(iz)amo* duten toponimoak urri izatea. Hitz bitan, *-(iz)amo* duten leku-izenak *-(iz)ama* dutenak baino bakanago eta sartalderago ageri dira. Alabaina, bi aldakiek topoglosa aski nabaria osatzen dute (2. mapa).

Toponimoek etenik gabeko eremuak osatzeko joera dute. Latinetiko berrekailuak dituzten leku-izenak dira adibide garbia, alderdi jakinetan biltzen direlako, herrialde batzuei hertsiki loturiko atzizki-esparruak daudelako. Konparazio batera, *-ika* duten antrotoponimoen indargune nagusia Bizkaian dago, iparraldean zehazkiro, Jaurerriko beste alderdi batzuetan ere azaldu arren. Argitasun gehiago nahi duenak jo beza Salaberriek 2011n (169. or.) eta 2012an (329-333. or.) idatzitako lanetara. Hain zuzen, Uxueko irakasleak biltzen duenez, badaude *-ika* atzizkiaren erakuskariak Araban, baita, menturaz, Nafarroan ere (*Cábrega*, *Zúñiga*, *Zabaldika*?); hori bai, ez dira euskal barrutiaren ipar-sartaldekoak bezain joriak.



2. mapa. Bukaeran *-(iz)am(a/o)* duten leku-izenak.

Onomastika-eremuak eta hizkuntza-esparruak ezin dira gauza beretzat hartu, ez dute zertan bat etorri, baina, Gorrotxategirekin (1993, 122. or.) bat eginez, estrapolazio sinesgarria iruditzen zait. *Hizkuntza-esparruak* diodanean, ni bederik ez naiz ari mintzaireren banalerroez, deizioen tasunez eta haien geruzez baizik. Hori argitu ondoren, ez dut behar baino gehiago esan uste *-(iz)ama* eta *-(iz)amo* atzizkien topoglosek antzinatean gurean toponimia-barrutiak zeudelako hipotesiaren alde egiten dutela esatearekin. Ez da ahaztu behar lurralde bateko leku-izenen nortasuna taxutzen duten ezaugarriak barneratzaileak (beste alderdi batzuetan azaltzen direnak) ez ezen, baztertzaileak (beste lekuetan agertzen ez direnak) izan daitezkeela.

3.2. Auzo-eremuen eragina

Latina gurera iritsi zenean, euskararen orduko *faciesak* (edo, nahiago bada, akitanierak) hizkuntza zeltak zituen aldamenean eta, espero izatekoa zenez, onomastikaren arloan atzematen da haien ekarpena. Akitanian, Pirinioen iparraldean, konparaziora, ondare galiarreko izenak nahiko zabalduak zeuden, sortaldean batez ere; antroponimoetan ez ezik, jainko-izenetan ere ikus daiteke eragin galiarra.

Mitxelenak (1954, 429-430. or.) *-isamo* superlatiboa duten *Marti Rigisamo* (Bourges, *CIL* XIII, 1190) eta *Mineruae Belisamae* (dat.) jainko-izenak aipatzen ditu (Saint-Lizier,

CIL XIII, 8; ik. Gorrotxategi, 2018, 273. or.) Akitanian igartzen den ekarpen zeltaren (galiarraren) adibide garbiez diharduelarik. Gorrotxategirentzat (2007, 231. or.) aurrenekoaren oinarria (*rigo-*), *rig-* ‘erregea’ hitzarekin lotua dago eta adiera ‘txit erregezkoa’ da. Era berean, Prósperren (2018, 125. or.) irudiko, *Belisamae* epiteto galiarraren osaketa **bel-isamo-* da eta esanahia ‘strongest’, baina Gorrotxategirentzat (2018, 274. or.) ez da hori, ‘argitsuena’ baizik.

Pirinioen hegoaldera etorriz, eta Gorrotxategirekin (2018, 275-276. or.) jarraituz, hark dio Iruña-Okan (Veleian), Arabako lautadaren ekialdean eta Nafarroako Lizarraldera begira dauden lurraldeetan agertu diren epigrafeetan dokumentatzen diren izen indigenak zeltiberieraren geruzakoak direla nagusiki. Berebat, Lizarraldean arruntak dira zeltiberiera-ondareko antroponimo eta leku-izenak. Eibarko irakaslearen iritzirako, euskal eremuaren sartaldea hizkuntza zelten esparru bihurtu zatekeen antzinatean.

Gorrotxategiren (1995, 57. or.) aburuz, hizkuntza zeltiberiarra mendebaldetik eta Ebro ibaiaren hegoaldean sartu zen. Mintzaira haren hiztunak euskal eremuaren bihotzeraino iritsi ziren eta hainbat toponimo utzi zituzten lekukotzat; euskara gorde den eremuan dagoen *Ultzama* aipatzen du jatorri zelta garbia duten toki-izenen artean.

Horrenbestez, ez da harritzekoa Pirinioen hegoaldean aurkituriko Antzinaroko epigrafian *-isamo* atzizki indoeuroparra osagaitako duten izenak egotea, ezta erakuskarriak Arabako ipar-sortaldean azaldu izatea ere, jatorri zeltako antroponimia ugariz gainera, *-(iz)ama* duen toponimia dagoen alderdian hain zuzen (ik. Zaldua, 2016). *Turaesamus* / *Turesamus* antroponimoaz ari naiz: [*T*]uraesamus *Cantabri* f. (Kontrasta; *Hesperia*, onom. 4544), [*Turae*]sam(us) [*Trit*]aieci fil. (Okariz; *Hesperia*, onom. 4544) eta *Turesica* *Turesami* f. (Luzkando [Alaiza]; *Hesperia*, onom. 4574). Prósperrentzat (2005, 272., 280. or., 2018, 125. or.) izen zelta horren osaketa **tur-isamo-* da eta adiera, berriz, ‘indartsuena’, ‘handiena’, ‘onena’. Hain justu, oinarriaren soburua **tūro-* litzateke eta *-isamo-* > *-aisamo* aldaketa analogiaren bidez azaltzeko arazorik ez legoke. Zernahi gisaz, Luzkandoko *Turesicaren* argitan, aurreneko osagaia *Tur(a)es-* (eta bigarrena *-amo*) izatea ez nuke erabat baztertuko.

Euskal eremuaren ondoko lurraldeetako toponimiari erreparatuz gero, itxarotekoa zenez, badaude *-isamo* atzizkia duten toki-izenak. Galian, adibidez, *Balesmes-sur-Marne* (Haute-Marne; *Belismus* [1276], *Belesme* [1326]; Dauzat, 1946, 145. or.) eta *Bellême* (Orne; *Belismo* [1092, 1247]; Nègre, 1990, I, 161. or.; cfr. Delamarre, 2012, 74. or.) daude, biak ala biak *-isamo* > *-ismo* sinkopa dutenak, ezagunenetariko bi besterik ez aipatzeko.

Hispanian, etimo ezaguna luketenen artean genituzke Coruñako *Breamo* (lekua, Pontedeume; < **brig-amo*, ‘el [lugar] más alto’; Prósper, 2005, 282. or.) eta *Guísamo* (kontzejua, Bergondo; < **wis-amo*, ‘el lugar más digno’; Prósper, 2005, 282. or.). Gehiago egon daitezke, baina hauen etorkiek ez dute ematen aurreko bienak bezain argiak, Lugoko Céramo (herrixka, Folgoso do Courel), Coruñako *Osmo* (hondartza, Puenteceeso) zein *Sésamo* (parrokia, Culleredo), Ourenseko *Osmo* (herria, Cenlle) eta Leongo *Sésamo* (herrixka, Vega de Espinareda) kasu (cfr. Meyer-Lübke, 1925, 530. or.; Prósper, 2004, 282. or.).

Gutxi eta oinarri ez-garbikoak izanagatik, ez dirudi halabeharrezkoa, beraz, euskal eremuan bukaeran *-(iz)amo* duten leku-izenak azaltzea. Ez bedi ahatz zatika lekukotu diren eta oraindik guztiz deszifratu gabe dauden galdutako hizkuntzen balizko honda-

kinez ari garela. Guztiarekin, miresgarria alderantzizkoa litzateke, toponimian latinaren aurreko hizkuntza indoeuroparren (bereziki zelten) adstraturik ez egotea. Norbaitek ikus ez badeza, argibide hau eskainiko diot: *-(iz)amo* duten etsenpluek oro har, eta *Legizama / Legizamon* bikoak bereziki, garbi samar adierazten dute euskal eremuko zenbait toponimotan ageri den *-(iz)ama / -(iz)amo* atzizkia datekeela, ez izena, eta, adibide horietan bederik, ez dela euskal jatorrikoa (*cf.* Mitxelena, 1960, 247-248. or.; Gorrotxategi, 2009, 75. or.), Europako beste hainbat tokitan ageri den superlatibo indoeuroparraren enborrekoa baizik (ik., konparaziora, Mitxelena, 1954, 429-430. or.; Jasanoff, 1991, 171. or.; Prósper, 2018, 123-128. or.).

4. Oinarrien izaera

Jarraian, zenbait ohar ipini nahi nituzke *-(iz)ama* duten toponimoen kariatara 2016an idatzitakoaz. Hara zergatik.

Aurretik duen oinarriaren osaketa eta hura latinezko atzizkiekin ere uztartu den ala ez aintzat hartuta, *-(iz)ama* duten toki-izenak hiru multzotan sailkatu nituen 2016an. Aurreneko multzoan (Benvenistek 1935ean [150-171. or.] zehazten dituen ezaugarriak gogoan izanik) antzinako erro indoeuroparraren forma kanonikoa bide duten oinarriekin osaturiko toponimoak bildu nituen; horiek dirateke, hain justu, zaharrenak, *Zegama*, *Ledama* edota *Legizama / Legizamon* kasu. Buru berean sartu behar dira *Bedama* (2), *Berama*, *Leizama* (*Lehiçama*, 1384), baita, ausaz, *Elama*, *Entzama* eta *Ezama* ere. Bigarrenean, *-(iz)ama* amaieraz gainera, (Euskal Herrian edo Iberiar penintsulako beste toki batean) latinezko atzizkiak ere hartu dituzten elementuekin sortutako leku-izenak sailkatu nituen eta, adibidez, *Amiao* zein *Araka* toponimoekin erkatuz, *Amiamaren* edo *Arakamaren* aurreneko zatiak antroponimoak izan zitezkeelako hipotesia erabili nuen. Buruenik, goiko bi taldeak finkatzeko erabilitako bi ezaugarriak aldi berean dituzten toponimoak bereiz zitezkeela nioen (*Lezama*, *Zezama*...).

Toponimoen eta antroponimoen arteko lotura hertsia bezain lausoa da. Ezaguna da, esate baterako, (jabetza edo jatorria adierazteko) pertsona-izenei latinezko atzizkiak erantsiz sortutako toki-izen franko dagoela. Horrelakoak, izatez, sintagma adjektibalak dira, *designatum*aren entitate geografikoa adierazten zuen aurreneko zatia ezabatuta dutenak.

Antroponimoekin jarraituz, asko deskribatzaileak dira jatorriz, adjektiboetatik eratorritakoak lekuko, eta, bestalde, ez dira falta, noski, izenondoak osagaitako dituzten toponimoak. Hain zuzen, badira pertsona- nahiz leku-izenetako erabilitako onimoak. Izen indoeuroparren saileko adibidea jartzearen, *Segisamo* toki-izenaz gainera, bada go *Segisamus* antroponimoa, Asturiasen eta Leonen zehazkiro. Azken finean, horrelakoetan bi deizioen arteko alde (ezabatutako) lehen osagaiaren nolakotasunean legoke batik bat, eta ez izenaren izaeran edo egituran, bi izendapenak superlatiboak direlako. Horrenbestez, *garaileena* adjektiboak, etsenplu horretan bederik, berdin balioko luke pertsona batentzat edo bizileku batentzat.

Azkenik, gauza jakina da latinezko epigrafian azaltzen diren antroponimoek askotariko jatorria dutela eta, adibidez, zenbait eremutan sorburu zelta duen izen ugari

dagoela haien artean; gehiago dena: sarritan, izenaren jatorrizko mintzaira latina edo hizkuntza zelta zen jakitea oso zaila edo ezinezkoa izaten da (Kajanto, 1982 [1965], 16-17. or.). Diodanaren adibide dirateke *Arco*, *Arquio*, *Arquius* antroponimoak.

2016an adierazitakoa zuzenduz, orain uste dut egokiagoa dela esatea *Arakama* bezalako indoeuropar jatorriko zenbait superlatiboren hasierak latinezko deantrotoponimo batzuen aurreneko elementuen eitea dutela, menturaz, guztien sorburua enbor bereko adjektiboetan dagokeelako. Hori argiturik, goian ikusi dugun *Orizamo* balizko superlatiboarena, esate baterako, *Olius* pertsona-izenaren nahiz *Oria* / *Orio* deantrotoponimoen oinarriarekin alderatzeko ezin gaindituzko oztoporik ez dut ikusten.

5. Balizko sorburua

5.1. Gizarte-maila eta hizkuntza-trataera

Mitxelena (1969, 34., 37. or.) argi adierazi zuen toponimia aztertzean ez dela aski dimentsio zeharkakoa (espazioa) aintzat hartzea; goitik beherako koordinatua (gizarte-maila) ere kontuan hartu behar da, maiz, hori izaten delako izenen nondik norakoa ulertzeko gakoa.

Dimentsio soziala ez dago, nahitaez, geografiaren arloko baldintzapenei lotua eta, ondorioz, alderdi bateko leku-izen guztiek ez dute zertan izan bertan bizi edo dihardutenek jarriak. Beraz, orografiaz gainera, gizataldeen jarduna gogoan hartu behar da toki-izenak jorratzerakoan, baina hori egitea ez da samurra Historia arloko argibiderik ez dagoenean.

Darabiltzadan izenei dagokienez, kanpotik ekarritakoak direla uste izateko pisuzko arrazoirik ez dut ikusten. Bertakoak dirudite, ondoko lurraldeetan ez baitira errepikatzen, hots, 2016an esan bezala, oro har, ez dut uste dauden tokietatik urruti bizi ziren pertsonen jarritakoak direnik, ezta tokiko euskaldun elebkarrek ipinitakoak ere, latinaren aurreko hizkuntza indoeuroparren bat ezagutzen zuten bertako gizon-emakumeek ezarriak baizik. *-(iz)ama* duten zenbait deizioen adierari kasu eginez gero (*Zegama*: ‘garaitzaileena’), zaila ematen du guztiak herritar arruntek sorturikoak izatea, baina ez da ahaztu behar, era berean, toponimo nagusiez gainera badaudela izen txikiak tartean eta horrelakoak lekuan lekuko herritar arrunten jardunarekin eta izendapen-beharrekin lotuak egoten direla arrunki.

Maileguez urregorrizko informazioa eskaintzen dute usu idazkirik ez dagoen garaiak argitzeko, bestea beste, neurri batean bederik, euskarara iritsi zirenean zuketen forma ezagut daitekeelako eta, gainera, hura, gutxi gorabehera, data batzuekin lot daitekeelako. Zentzu horretan, De Hozek eta Mitxelena (1974, 186-187. or.) azpimarrazten dutenez, abian kontrajarriak diruditen bi gauza gogoan eduki behar dira. Batetik, maileguak, hastapeneko itxurari zenbat eta gehiago eutsi, hau da, ondoko hizkuntza erromantzeetan izandako aldaketak zenbat eta gutxiago erakutsi, orduan eta antigoalekoagoak izango dira; bestalde, hasierako eitea zenbat eta gehiago aldatu, euskararen nortasunari zor zaizkien aldaketek zenbat eta gehiago eragin, orduan eta zaharragoak

izango dira, alegia, ezaugarri horiek maileguak mudantza haiek gertatu aurretik iritsi zirela egiaztatuko lukete.

Ikusi ditugun toponimo batzuek izan duten hizkuntza-trataera erromantzeak sortu aurrekoa dateke, *-izamo* dutenak lekuko. Bestela esan, zenbait aldaketa (-s- > -z-) bat datozke euskararen arauen arabera bilakatu diren latinetik toponimoetan ikusten direnekin eta leku-izen horiek euskarara mudantza haiek burutu aurretik edo gertatzen ari zirenean iritsi zirela iradokiko lukete. Berebat, ondoko erromantzeetan atzematen diren bilakaera fonetiko batzuen arrastorik ez dago, bokal sinkopa kasu (*-Vsama/o* > *-Vsma/o*).

Latinaren aurreko jatorri indoeuroparra duketen zenbait toponimok izandako hizkuntza-trataerak, erromantzearekin bateraezina denak eta euskarak berezkoa duenak, mailegu horiek sartu zirenean bertako biztanleria euskalduna zelako iritzia ernarazten dute (cfr. Gorrotxategi, 2009, 75. or.). Salbuespenak *Legizamon* eta *Andamón* izan daitezke, kodan aldameneko erromantzean ere lekukotzen den bilakabidea izan bide dutelako (lat. [gen.] **-amoni* > **-amone* > gazt. *-amón*). Hain zuzen, daitekeena da biok euskarara latinaren bidez iritsitakoak izatea, eta ez zuzenean hizkuntza zeltatik, hots, hizkuntza zeltatik latinera eta hemendik euskarara (cfr. Gorrotxategi, 2018, 283. or.).

5.2. Adstratua eta substratua

Maiz entzuten da gure artean toponimia zaharrenaren azterketa dela Historiaurreko populazioen hizkuntza ezagutzeko bide (bigarrenkari) bakarretakoa. Zentzu horretan, badira gogoan eduki beharreko zenbait puntu, Mitxelena (1966, 279. or.) oroitarazten digun bezala, onomastikaren ikerketa berezko arazoak dauzkan eta denboraren buruan metodo bereziak garatu dituen jarduera espezializatua delako.

Pertsona-izenak, adibidez, hizkuntzekin batera (eta haiek gabe ere bai) tokiz aldatzen dira sarritan. Adibidea jartzearen, Lizarraldean Antzinaroko pertsona-izenak ondare zeltiberiarrekoak dira; jainko-izenak, aldiz, euskal geruzakoak. Horrek adieraziko luke antroponimoak gizartearen sinesmenekin lotzen diren jainko-izenak baino aldakorragoak zirela; bestela esan, geruza bat, euskal jainkoena alegia, bestea baino zaharragoa datekeela lurralde horretan (Gorrotxategi, 2018, 278. or.). Zilegi bekit gogoraraztea alderdi hartatik gertu badela *-ama* duen toponimia (*Berama*, *Entzama*, *ZeZama*).

Toki-izenak, berriz, lurrari atxikita daude arrunki, etenik gabeko eremuak osatzeko joera dute eta aski iraunkorrak dira; hitz batean, antroponimoek baino finkotasun handiagoa dute. Egia da toponimia ez dela gauza aldaezina, etengabe berritzen delako eta leku-aldaketak egon daitezkeelako, baina duen mudantza-erritmoa antroponimiarena baino mantsoagoa da.

Arabian, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan badago *-(iz)ama* / *-(iz)amo* superlatibo indoeuroparra bide duen toponimo-sortatxo, baina Iruñetik sortaldera hutsunea dagoela irudi du Nafarroako zenbait alderditan, Iparraldean bezala. Baldin nire iritzia estalkirik gabe agertu behar badut, laginen kopuruak eta banaketak, latina iritsi zenean, gurean euskararen saileko hizkuntzarik ez zegoelako baieztapena larriki oztopatzen du, eta, aitzitik, eragin indoeuroparra sartaldetik eta, menturaz, hegoaldetik, sartu zelako hipotesiaren alde egiten du. Topoglosek erakusten dutena aintzat hartuz gero, Euskal Herriko toponimian dagokeen latinaren aurreko osagai indoeuroparra adstratua da, eta ez substratua.

6. Galderak

Galdera askoren artean bik kezkatzen naute: zergatik dira bakanagoak bukaeran *-(iz)amo* duten toponimoak eta zergatik azaltzen dira *-(iz)ama* dutenak baino sartalderago?

Horren harira, oroitu behar da Prósperrek (2005, 278-282. or.), *-amo* duten superlatibo gehienak Zeltiberiatik kanpo azaltzen direla aintzat hartuz, aipatu lurraldearen muinean noizbait atzizki haren erakuskari gehienak *-(i)samo-* zutenek ordezkatu zituztelako hipotesia proposatzen duela. Horrek, besteak beste, aditzera eman dezake aspaldian susmatzen ari naizena: *-izamo* / *-izama* duten toponimoak, oro har, *-amo* / *-ama* dutenak baino berriagoak diratekeela.

Bada, horiez gain, beste arazo bat, aski axolazkoa hau ere: Pirinioen hegoaldeko euskal eremuko alderdi batzuetan erabili bide zen latinaren aurreko hizkuntza indoeuroparra zehazkiro zein zen, hots, Euskal Herriaren indoeuropartzea hizkuntza zeltiberiarra iristearekin batera hasi zen ala ez. Oraingoz, baina, galdera hutsetan gelditu behar, handik aurrera urratsik egin gabe, ez baitut oinarririk aski eta ez bainaiz gauza sail horretan aurrerago sartzeko.

Erreferentziak

- Agud, M. (1973). Áreas toponímicas en el País Vasco. *ASJU*, 7, 37-55.
- Albertos, M. L. (1966). *La onomástica personal primitiva de Hispania: Tarraconense y Bética*. Salamanca: CSIC-Instituto «Antonio de Nebrija».
- Albertos, M. L. (1970). Álava prerromana y romana. Estudio lingüístico. *Estudios de Arqueología Alavesa*, 4, 107-234.
- Albertos, M. L. (2004). La lengua de los habitantes del País Vasco en la Edad de Hierro. *Estudios de Arqueología Alavesa*, 21, 253-280.
- Arias, A. (1588). *Ejecutoria del pleito [...] sobre la entrada de varios vecinos de los primeros en el monte de Arcamo...*, Archivo de la Real Chancillería de Valladolid. Registro De Ejecutorias, 1624.3 kutxa.
- AV = Mitxelena, 1953.
- Ayerbe, M. R. & Etxezarraga, J. (1999). *Archivo Municipal de Elgoibar (1346-1520)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Benveniste, É. (1935). *Origines de la formation des noms en indo-européen*. Paris: Maisson-neuve.
- CIL = Hübner, 1869.
- Dauzat, A. (1946). *La toponymie française*. Paris: Payot.
- Delamarre, X. (2012). *Noms de lieux celtiques de l'Europe ancienne, dictionnaire*. Paris: Editions Errance.
- De Hoz, J. (koord.). (d. g.). *Hesperia. Banco de datos de lenguas paleohispánicas* [database]. Universidad Complutense de Madrid. <http://hesperia.ucm.es> helbidetik eskuratua.

- De Hoz, J. & Mitxelena, K. (1974). *La inscripción celtibérica de Botorrita*. Salamanca: Universidad de Salamanca.
- e. g. (1636). *Doneztebeko elizateko bataio-erregistroak*. Bizkaiko Elizaren Histori Artxiboa. 1149243 identifikatzailea. http://internet.aheb-beha.org/paginas/indexacion/n_indexacion.php#buscar helbidetik eskuratua.
- Enríquez, J. (1988). *Colección documental de la villa de Plencia (1299-1516)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Enríquez, J. (1989). *Colección documental del Archivo Municipal de Marquina (1355-1516)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Enríquez, J., Hidalgo de Cisneros, C., Lorente, A. & Martínez, A. (1997). *Foguera-Vecondario de las Villas de Vizcaya de 1511*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Enríquez, J., Hidalgo de Cisneros, C. & Martínez, A. (1999). *Colección documental del Archivo Histórico Municipal de Bilbao (1300-1473)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Enríquez, J., Hidalgo de Cisneros, C. & Martínez, A. (2006). *Archivo Foral de Bizkaia. Sección municipal. Documentación medieval (1326-1520)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Gorrotxategi, J. (1993). La aportación de la lingüística a la reconstrucción del poblamiento del País Vasco. *Ilunzar*, 94, 113-125.
- Gorrotxategi, J. (1995). The Basque language and its neighbors in antiquity. In J. I. Hualde, J. A. Lakarra & R. L. Trask (arg.), *Towards a history of the Basque language* (31-63. or.). Amsterdam-Philadelphia: John Benjamins.
- Gorrotxategi, J. (2005). Establishment and analysis of Celtic toponyms in Aquitania and the Pyrenees. In J. de Hoz, E. R. Luján & P. Sims-Williams (arg.), *New approaches to Celtic place-names in Ptolemy's Geography* (153-172. or.). Madrid: Ediciones Clásicas.
- Gorrotxategi, J. (2007). Hacia el establecimiento del corpus de divinidades célticas de Aquitania. In M. Hainzmann (arg.), *Auf den Spuren keltischer Gotterverehrung. Akten des 5. FERCAN-Workshop (Graz, 9-12 Oktober 2003)* (111-138. or.). Viena: Österreichische Akademie der Wissenschaften.
- Gorrotxategi, J. (2009). Las lenguas de los Pirineos en los tiempos antiguos. In J. Santos (arg.), *Los tiempos antiguos en los territorios pirenaicos* (55-80. or.). Gasteiz: UPV/EHU.
- Gorrotxategi, J. (2015). Arabako (eta inguruko) hizkuntzak antzinatean / Las lenguas de Álava (y alrededores) en la antigüedad. *Lenguas y hablantes de Álava en un mundo multilingüe* (5-20. or.). Gasteiz: Arabako Foru Aldundia.
- Gorrotxategi, J. (2018). Euskara Antzinatean. In J. Gorrotxategi, I. Igartua & J. A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia* (231-286. or.). Gasteiz: Eusko Jaurlaritzia.
- Hesperia = De Hoz, d. g.
- Hübner, E. (1869). *Corpus Inscriptionum Latinarum, vol II: Inscriptiones Hispaniae Latinae*. Berlin: Georg Reimer.

- Irigoyen, A. (1972). Formas de nombre de localidades vizcaínas. *FLV*, 11, 207-218.
- Irigoyen, A. (1975). La colegiata de Cenarruza y sus seles. *II Simposio sobre Historia del Señorío de Vizcaya* (separata). Bilbo: RSVAP-Junta de Cultura de Vizcaya.
- Jasanoff, J. (1991). The origin of the celtic comparative type OIr. *tressa*, MW. *trech* 'stronger'. *Die Sprache*, 34, 171-189.
- Jimeno, J. M. (zuz.). (1992-1999). *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza / Toponimia y Cartografía de Navarra (1-50 libk.)*. Iruñea: Nafarroako Gobernu.
- Kajanto, I. (1982 [1965]). *The Latin cognomina. Societas Scientiarum Fennica «Commentationes Humanarum Litterarum» 36.2*. Erroma: George Bretschneider.
- Kerexeta, J. (1992). *Fogueraciones de Bizkaia del siglo XVIII*. Bilbo: Labayru Instituta-Bilbo Bizkaia Kutxa.
- López de Guereñu, G. (1989). *Toponimia alavesa seguido de mortuorios y pueblos alaveses*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- López de Vargas, T. (1770a). *Mapa de la M. N. y M. L. Provincia de Álava*. Real Academia de la Historia. C-011-001-45. 00936 erregistroa.
- López de Vargas, T. (1770b). *Mapa de la M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa*. Real Academia de la Historia. C-011-001-44. 00935 erregistroa.
- Madoz, P. (1845-1850). *Diccionario geográfico-estadístico-histórico de España y sus posesiones de Ultramar (1-16 libk.)*. Madril: Establecimiento tipográfico de P. Madoz y L. Sagasti.
- Matasović, R. (2009). *Etymological dictionary of Proto-Celtic*. Leiden-Boston: Brill.
- Meyer-Lübke, W. (1925). Zur Kenntnis der vorrömischen Ortsnamen der Iberischen Halbinsel. *Homenaje ofrecido a Menéndez Pidal. Miscelánea de estudios lingüísticos* (I, 63-84. or.). Madril: Hernando.
- Mitxelena, K. (1953). *Apellidos vascos*. Donostia: Biblioteca Vascongada de los Amigos del País.
- Mitxelena, K. (1954). De onomástica aquitana. *Pirineos*, 10, 409-455.
- Mitxelena, K. (1956). Introducción fonética a la onomástica vasca. *Emerita*, 24, 167-186 & 331-352.
- Mitxelena, K. (1960). Los dialectos indoeuropeos hispánicos. *Zephyrus*, 11, 245-248.
- Mitxelena, K. (1966). La lengua vasca y la prehistoria. *Problemas de la prehistoria y de la etnología vascas. IV Symposium de prehistoria peninsular bajo la dirección del Dr. D. Juan Maluquer de Motes* (271-285. or.). Iruñea: Nafarroako Foru Diputazioa.
- Mitxelena, K. (1969). Notas lingüísticas a «Colección diplomática de Irache». *FLV*, 1, 1-59.
- Nègre, E. (1990). *Toponymie générale de la France*. Geneva: Librairie Droz.
- Ordoñana, A. (1620). Protocolos. Arabako Artxibo Historiko Probintziala. 4.678 zk.
- Parthey, G. & Pinder, M. (1848). *Itinerarium Antonini Avgvsti et Hierosolymitanvm ex libris manvscriptis ediderunt G. Parthey et M. Pinder*. Berlin: Impr. F. Nicolai. <https://archive.org/details/itinerariumanto00pindgoog/page/n258> helbidetik eskuratua.

- Pozuelo, F. (1998). *Documentación de la cuadrilla de Campezo: Arraia, Maeztu, Berredo, Campezo, Lagran y Valle de Arana (1256-1515)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Pozuelo, F. (2005). *Documentación Municipal de la Cuadrilla de Salvatierra: Municipios de Alegría-Dulantzi, Barrundia, Elburgo-Burgelu e Iruraiz-Gauna*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Pozuelo, F. (2007). *Archivo Municipal de Salinas de Añana-Gesaltza. Libro de Elecciones, Acuerdos y Cuentas (1506-1531)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Prósper, B. M. (2004). Varia palaeohispanica occidentalia. *Palaeohispanica*, 4, 169-194.
- Prósper, B. M. (2005). Estudios sobre la fonética y la morfología de la lengua celtibérica. In F. Villar & B. M. Prósper (arg.), *Vascos, celtas e indoeuropeos. Genes y lenguas* (157-366. or.). Salamanca: Ediciones Universidad de Salamanca.
- Prósper, B. M. (2018). The Indo-European Personal Names of Pannonia, Noricum and Northern Italy: comparative and superlative forms in Celtic, Venetic, and South-Picene. *Вопросы ономастики*, 15, 108-138.
- Salaberri, P. (2011). Sobre el sufijo occidental *-ika* y otras cuestiones de toponimia vasca. *FLV*, 113, 139-176.
- Salaberri, P. (2012). Topónimos alaveses de base antroponímica terminados en *-ain*, *-egi*, *-eta (-keta)*, *-ika*, *-iku (-iko)*, *-inu (-ina)*, *-itu (-ita)*, *-ón*. *FLV*, 115, 323-357.
- Salaberri, P. (2015). *Araba / Álava. Los nombres de nuestros pueblos*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Salaberri, P. & Zaldúa, L. M. (2019). *Gipuzkoako herrien izenak: lekukotasunak eta etimologia*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Solin, H. & Salomies, O. (1994). *Repertorium nominum gentilium et cognominum latinorum*. Hildesheim-Zürich-New York: Olms-Weidmann.
- Zaldúa, L. M. (2016). Sobre el elemento indoeuropeo pre-latino en la toponimia de Vasconia: los nombres de lugar terminados en *-ama*. *FLV*, 121, 185-233.

Aurkibidea / Índice

- 11 Aitzinsolasa
- 13 Prólogo
- 15 Testu-corpusen informazio morfosintaktikoaren etiketatze automatikoa
hizkuntz ezagutzan oinarrituz: zenbait arazo, hainbat erronka
ITZIAR ADURIZ, JOSE MARI ARRIOLA
- 31 Bertsolaritzaren genealogia subalternoak
LUZIA ALBERRO, K. JOSU BIJUESCA
- 47 Euskal hiztun berri gazteak muda-prozesuan: ekintza-ikerketa baten
behinbehineko emaitzak
ESTIBALIZ AMORRORTU, ANE ORTEGA, JONE GOIRIGOLZARRI
- 63 Garaziko euskararen azterketa diafasikoa
ALEXANDER ARTZELUS MUXIKA
- 81 Berridazketak Sarrionandiaren poesian eta Saizarbitoriaren *Egunero hasten
delako* nobelan: hurbilpen genetiko bat
MIKEL AYERBE SUDUPE
- 95 Somorrostro, mendebaldeko euskararen muga
GOIO BAÑALES, MIKEL GORROTXATEGI
- 113 Euskara sasoian? Euskararen sozializazioa Gasteizko
pilota-elkarte batean
IÑIGO BEITIA
- 127 Euskal hiztun natiboak, ez-natiboak eta hitanoa
GARBIÑE BEREZIARTUA ETXEBERRIA, BEÑAT MUGURUZA ASEGINOLAZA
- 141 Lingüística Histórica: estado actual
LYLE RICHARD CAMPBELL
- 163 Lenguas y sociolingüística en el interior del País Vasco en el siglo XIX:
testimonios del Archivo Zavala
BRUNO CAMUS BERGARECHE, SARA GÓMEZ SEIBANE

- 177 Les verbes psychologiques du basque : typologie et diachronie
DENIS CREISSELS, CÉLINE MOUNOLE
- 195 Testu-generoaren irudikapena eta erabilera ahozkoaren
didaktikan
LEIRE DIAZ DE GEREÑU LASAGA, ITZIAR IDIAZABAL GORROTXATEGI, LUIS MARI
LARRINGAN ARANZABAL
- 209 Zentsura-ikasketak gaur egun: aplikazioa euskal literaturan
AMAIA ELIZALDE ESTENAGA
- 223 Azentuazioaren eremu sintaktikoak mugatzen
ARANTZAZU ELORDIETA
- 237 Sintaktikoki etiketatutako euskarazko corpus historikoa
eraikitzen
AINARA ESTARRONA, IZASKUN ETXEBERRIA, RICARDO ETXEPARE, MANUEL
PADILLA-MOYANO, ANDER SORALUZE
- 253 Ahozkotasunaren didaktika ikuspegi dialektikotik abiatuta
AINHOA EZEIZA, JAVIER ENCINA
- 267 Ahozko euskararen erabilera eskolan: gako zenbait irakasleen prestakuntzarako
INES M. GARCIA-AZKOAGA, OLATZ BENGOETXEA, JOSUNE ZABALA
- 283 El corónimo navarro *Salazar / Zaraitzu*: origen y desarrollo de su doble
denominación
ROBERTO GONZÁLEZ DE VIÑASPRE
- 295 *Fontes Linguae Vasconum*: orígenes y documentos para una Historia
del Euskara
JOAQUÍN GORROCHATAGUI
- 315 Euskal literatura itzuliaren historiografia bateraturantz
MIREN IBARLUZEA SANTISTEBAN
- 329 Basque among the world's languages: a typological approach
IVÁN IGARTUA
- 351 Familias vascohablantes: propuesta de definición desde la socialización
lingüística
PAULA KASARES
- 363 Formation linguistique de basque aux enseignants, pour un enseignement
bilingue à parité horaire au Pays Basque Nord
BEÑAT LASCANO
- 375 Eñaut Etxamendiren obra narratiboaren ekarpena euskal poetika erruralari
ITZIAR MADINA
- 391 Erdaretarako literatur itzulpena: zeharkako eta zuzeneko itzulpenaren arteko
muga lausoa
ELIZABETE MANTEROLA AGIRREZABALAGA

- 405 Ahozko euskararen irakaskuntzarako irakasleen prestakuntza: berrikuntza didaktikoa eta soziala?
IBON MANTEROLA
- 421 Enkarterriko PI-(h)aran/(h)uri motako euskal toponimoak
MIKEL MARTÍNEZ ARETA
- 437 Diachronical hypotheses accounting for synchronic variation: the case of the Basque particle *ote*
SERGIO MONFORTE
- 453 Jardueraren azterketa irakasleak prestatzeko bide: debatearen ikas-irakaskuntzaren adibidea
AROA MURCIANO EIZAGUIRRE, ARANTZA OZAETA ELORTZA
- 467 Hausnarketa zenbait euskal literatura-ikerketetz
MARI JOSE OLAZIREGI
- 485 Ahozko euskara *Kolegioko ikastresna* ikasmaterialean
ARGIA OLÇOMENDY
- 501 Euskararen postposizioak
JAVIER ORMAZABAL
- 517 Hitz-ordenaren eragina zenbait ezaugarri gramatikalen erabilera-maiztasunean
LUIS PASTOR
- 533 Differential D-marking on proper names? A cross-linguistic study
IKER SALABERRI
- 547 Externalization and morphosyntactic parameters in Basque
HISAO TOKIZAKI
- 561 XIX. mendeko Debagoieneko testuez zenbait argitasun: egiletasuna eta iturriak
OXEL URIBE-ETXEBARRIA
- 579 Euskarazko perpausik gabeko azpikonparazioak
LAURA VELA-PLO
- 595 Latinaren aurreko osagai indoeuroparra Euskal Herriko toponimian: bukaeran -(iz)amo duten leku-izenak
LUIS MARI ZALDUA

Izenburua/Título:

Fontes Linguae Vasconum 50 urte. Ekarpen berriak euskararen ikerketari/Nuevas aportaciones al estudio de la lengua vasca

© Argitaratzaileak/Editores:

Ekaitz Santazilia, Dorota Krajewska, Eneko Zuloaga, Borja Ariztimuño

© Egileak/Autores:

Itziar Aduriz, Jose Mari Arriola, Luzia Alberro, K. Josu Bijuesca, Estibaliz Amorrortu, Ane Ortega, Jone Goirigolzarri, Alexander Artzelus Muxika, Mikel Ayerbe Sudupe, Goio Bañales, Mikel Gorrotxategi, Iñigo Beitia, Garbiñe Bereziartua Etxeberria, Beñat Muguruza Aseginolaza, Lyle Richard Campbell, Bruno Camus Bergareche, Sara Gómez Seibane, Denis Creissels, Céline Mounole, Leire Diaz de Gereñu Lasaga, Itziar Idiazabal Gorrotxategi, Luis Mari Larringan Aranzabal, Amaia Elizalde Estenaga, Arantzazu Elordieta, Ainara Estarrona, Izaskun Etxeberria, Ricardo Etxepare, Manuel Padilla-Moyano, Ander Soraluze, Ainhoa Ezeiza, Javier Encina, Ines M. Garcia-Azkoaga, Olatz Bengoetxea, Josune Zabala, Roberto González de Viñaspre, Joaquín Gorrochategui, Miren Ibarluzea Santisteban, Iván Igartua, Paula Kasares, Beñat Lascano, Itziar Madina, Elizabete Manterola Agirrezabalaga, Ibon Manterola, Mikel Martínez Areta, Sergio Monforte, Aroa Murciano Eizaguirre, Arantza Ozaeta Elortza, Mari Jose Olaziregi, Argia Olçomendy, Javier Ormazabal, Luis Pastor, Iker Salaberri, Hisao Tokizaki, Oxel Uribe-Etxebarria, Laura Vela-Plo, Luis Mari Zaldua

© Argitaratzailea/Edita:

Nafarroako Gobernua/Gobierno de Navarra

Kultura eta Kirol Departamentua/Departamento de Cultura y Deporte

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia/Dirección General de Cultura-Institución Príncipe de Viana

Lanak adituek berrikusi dituzte, itsu bikoitzeko sistemaren bidez/Los trabajos han sido revisados por pares doble ciego.

Diseinua eta maketazioa/Diseño y maquetación:

Kö estudio

Imprimaketa/Impresión:

Linegrafic

ISBN: 978-84-235-3561-3

LG/DL: NA 1438-2020

Sustapena eta banaketa/Promoción y distribución:

Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Funtsa/Fondo de Publicaciones del Gobierno de Navarra

Navas de Tolosa, 21

31002 Iruña/Pamplona

Tel.: 848 427 121

fondo.publicaciones@navarra.es

<https://publicaciones.navarra.es>

Fontes Linguae Vasconum 50 urte.

2019an 50 urte egin zituen Nafarroako Gobernuaren Vianako Printzea Erakundeak argitaratzen duen *Fontes Linguae Vasconum: studia et documenta* euskal hizkuntzalaritzako aldizkariak.

Horren gorazarre, liburu honek gaur egungo euskal hizkuntzalaritza- eta literatura-ikerketan zertan den erakutsi nahi du. Eskarmentu handiko ikertzaileek eta belaunaldi berriek bat egin dute argitalpen honetan, besteak beste, dialektologia, hizkuntzaren didaktika, filologia, gramatika teorikoa, hizkuntz tipologia, hizkuntzalaritza historikoa, itzulpengintza, literatura, onomastika eta soziolinguistika hizpide dituztela.

La revista de lingüística vasca *Fontes Linguae Vasconum: studia et documenta*, publicada por la Institución Príncipe de Viana del Gobierno de Navarra, cumplió 50 años en 2019.

En homenaje de la efemérides, este libro pretende dar cuenta del estado actual de la investigación en lingüística y literatura vascas. Investigadores de gran trayectoria y nuevas generaciones se reúnen en esta publicación para tratar, entre otros temas, sobre dialectología, didáctica de la lengua, filología, gramática teórica, tipología lingüística, lingüística histórica, traducción, literatura, onomástica y sociolingüística.

ISBN: 978-84-235-3561-3



9 788423 535613